



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/06/02

“Marrazkilariak gerran. 1936-1939” erakusketea eta “Gerra Zibila Enkarterrin” kongresua Enkarterriko Museoan

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak Enkarterriko Museoaren *Marrazkilariak gerran. 1936 – 1939* erakusketa barria inaugurau dau gaur goizean. Gerra Zibilean egon ziran ideologia guztietako egunkarietako 70 irudik osatzen dabe. Presidenteak azaldu dauenez, irudi horreek “Avilako Artxibategi Militarrean berreskuratu dira”. Erakusketaren buruan, Aline Soberon eta Txema Uriarte dagoz, biak be historialariak, eta Alineren kasuan baita marrazkilaria be.

Erakusketaren aurkezpen ekitaldian, Batzarretako Presidenteak, Enkarterri inguruan jasan zan Gerra Zibilaren gainean azken bi urteotan Museoak aurrera eroan dituan jardueren eta kultur ekintzen gaineko azalpena emon dau. Horreen artean oroimenaren ibilpideak azpimarratu ditu, “Sopuertan edo Alen, Kolutza, Luxar edo Mondon mendietan kontserbautako Gerrako ondare elementuak” bisitatu ahal izan dira; horreek, gainera, “testigantzetan oinarritutako *Gerra bateko Oroimenak* izeneko ikasleentzako ikas-unidadeagaz” osatu ziran.

Holan, Ana Otadui gogoratu arazo dau Enkarterri inguruneak “azkenengo trintxerea izenez ezagutu zan azkenengo defentsa lerroaren aztarnak gordetan dituala bere mendietan”, eta baita hori “izan zala Euskal Gudarostearen azkenengo erasoaldiaren agertokia”; gainera, “oroimenaren aztarna” horreek “hobeto ezagutzeak eta balioan jarzteak” daukan garrantzia azpimarratu dau.

Oroimen historikoari buruzko jardunaldia osatzeko, erakusketea inaugurau ostean, Museoak *Gerra Zibila Enkarterrin* Kongresua jaso dau. Kongresu horren helburua “ikerlariak hartu-emonetan jarteko baliagarri” izatea da, eta baita “orain arte egindako guztia finkatuko dauen eta daborduko ezagutzen dana balioan jarten ahalegintzeko oinarria izango dan laneko sinergia sortzea” be, Batzar Nagusietako Presidenteak adierazo dauen moduan.

Sinposioak hainbat ikerlari alkartu ditu, Aitor Miñambres, Xabier Irujo edo Jone Miren Gil, beste batzuen artean. Hamar aditu baino gehiagok hartu dabe parte Kongresuan, eta oroimen historikoari eta Gerra Zibilari jagokenez, Enkarterriko eskualdea osatzen daben udalerrietako bakotxari buruzko euren azterlanak aurkeztu ditue.

NOTA DE PRENSA

02/06/18

El Museo de las Encartaciones acoge la exposición “Dibujantes en guerra: 1936-1939” y el congreso “Guerra Civil en Las Encartaciones”

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha inaugurado esta mañana la nueva exposición del Museo de las Encartaciones *Dibujantes en guerra: 1936 – 1939*, compuesta por 70 ilustraciones de algunos de los periódicos de diversas ideologías que estuvieron en marcha durante la Guerra Civil; estas ilustraciones, según ha explicado, “han sido recuperadas en el Archivo Militar de Avila”. Al frente de esta nueva muestra se encuentran Aline Soberon y Txema Uriarte, ambos historiadores y en el caso de Aline también ilustradora.

Durante la presentación de la exposición la Presidenta de las Juntas ha hecho un repaso por las actividades y acciones culturales que el Museo ha llevado a cabo a lo largo de estos dos últimos años en torno a la zona de las Encartaciones durante la Guerra Civil. Entre ellas ha destacado los itinerarios de la memoria que han permitido recorrer “elementos patrimoniales de la Guerra conservados en Sopuerta o en los montes Alen, Koltza, Luxar o Mondon”; estos, además, fueron complementados con “una unidad didáctica para escolares titulada *Memorias de una Guerra*, basada en la recogida de testimonios”.

En este sentido Ana Otadui ha recordado que la zona encartada “atesora en sus montes los restos de aquella última línea defensiva conocida como la última trinchera”, y que ésta “fue escenario también de la última ofensiva del Ejército Vasco”; asimismo ha hecho especial énfasis en la necesidad de que estos “vestigios de la memoria” sean “mejor conocidos y puestos en valor”.

Como colofón a esta jornada sobre memoria histórica, tras la inauguración de la muestra, el Museo ha acogido el Congreso *La Guerra civil en Encartaciones*, el cual pretende “ser útil para poner en contacto a investigadores” además de “crear una sinergia de trabajo que apuntale todo lo realizado hasta ahora y servir de base para tratar de poner en valor todo lo ya conocido”, tal y como ha manifestado la Presidenta de las Juntas Generales.

El simposio ha acogido a un importante número de investigadores como Aitor Miñambres, Xabier Irujo o Jone Miren Gil, entre otros. Más de una decena de expertos han participado en el Congreso y han aportado sus estudios acerca de cada uno de los municipios que conforma la comarca de Las Encartaciones en relación a la memoria histórica y la Guerra Civil.